

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

139/2019 Foru Agindua, maiatzaren 9koa, Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoan eta Arabako Arte Ederren Museoan ikerketa egiteko lau bekaren deialdi publikoa onesten duena

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak proposatu du deialdi publikoa egitea 2019an Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoan eta Arabako Arte Ederren Museoan ikerketa egiteko lau bekatarako.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Deialdi publikoa onestea 2019an Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoan eta Arabako Arte Ederren Museoan ikerketa egiteko lau bekatarako, 12.000,00 eurokoa duelarik gehieneko hornidura.

Bigarrena. Deialdi hau arautzen duten oinarriak onestea, oinarriak espedienteari erantsita geratzen direla.

Hirugarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontuko gastu partida honen kontura egingo da: 70.1.08.72.00.480.00.01 (xedapen erreferentzia: 105.1933).

Laugarrena. Ebazpenak gehienez ere hiru hilabeteko epean emango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Esandako epea igarota, eskabideari buruzko esanbi dezko ebazpenik jasotzen ez bada, ulertuko da eskaerari ezezkoa eman zaiola, hargatik eragotzi gabe geroago ebatzi ahal izatea.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu daiteke bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Seigarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan arautzen dituen moduetan.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 9a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua
IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria
JOSEBA KOLDO LÓPEZ DE HEREDIA ARBÍGANO

Eranskina

Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoan eta Arabako Arte Ederren Museoan ikerketa egiteko lau bekatarako deialdia

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da lau beka ematea, lehiaketa bidez:

– Beketatik hiru izango dira ekoizpen artistiko garaikidearen ikerketa, dokumentazioa, kontserbazioa eta haren gaineko azterlanaren zabalkundea bultzatzeko, eta Arabako Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoak zuzendu eta jagongo ditu.

– Beste bat, Arabako Arte Ederren Museoaren erakusketa programatuen historikoko agirien eta argazkien artxiboaren ikerketa bultzatzeko.

Bigarrena. Onuradunak

2.1. Bekak lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Espainiako herritartasuna, Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritartasuna edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duen estaturen bateko herritartasuna izatea, eta Arabako Lurralde Historikoko nahiz Trebiñuko Konderriko zeinahi herritan erroldatuta egotea oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunean.

b) Lizentziadunaren tituluaren edo goi-mailako tituluren baten jabe izatea, Humanitateetan eta/edo garatu behar den proiektuaren espezialitateari lotutako jakintza arloren batean.

Azterrian lortutako tituluek, edo titulartasun pribatua duten ikastegietakoek, baliozkotuak edo onartuak egon behar dute, eta ondorio zibil osoak eduki behar dituzte bekak ematen diren unean.

2.2. Beka horiez baliatzeak ez du esan nahi lan harremanik dagoenik Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailarekin edo Arabako Artium Fundazioarekin, ez eta bekadunak langileen plantillan sartzeko konpromisorik hartu denik ere.

2.3. Bekadunaren proiektua Euskara Kultura eta Kirol Sailaren Arabako Arte Ederren Museoan eta Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoan garatu beharko denez, bi museo horietako jendearen arretarako ordutegiari egokitu beharko zaio.

Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen proiektuak

a) Arabako Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoak zuzendutako bekak jarraian aipatzen diren ikerketa lerroetako edozeinetan garatu ahal izango dira, edo eskatzaileak proposatzen duen beste edozeinetan, baldin eta arte garaikidearen ezagutzan eta zabalkundean laguntzen badute eta museoarentzat interesgarria izan badaiteke:

– Artiumen bildumaren arloko ikerketa: museoaren funtsaren zati diren edo harekin lotura duten egileak, obrak, aztergaiak, kronologiak, artxiboak...

– Museoko arlo didaktikoko eta hezkuntzaren esparruko proiektuen garapeneko ikerketa.

– Arte garaikidea zaharberritzearen arloko ikerketa bide berriak.

– Arte garaikidearen ondare bibliografikoa eta dokumentala.

– Arte garaikidearen museoetako bisitarien azterketa.

Artiumek izendatutako arduradun batek aholkularitza eta orientabideak eman eta jarraipena egingo dio ikerketa proiektu bakoitzari.

b) Arabako Arte Ederren Museoak zuzentzen duen bekaren kasuan, proiektuaren xedea da Arabako Arte Ederren Museoak programatutako erakusketetako agiriaren eta argazkien artxiboa ikertzea.

Laugarrena. Aurkeztu beharreko eskaerak eta agiriak

Beka hauek eskuratzeko interesa duten pertsonak agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, agiriotan idatzizko edo irudizko hizkera ez-sexista erabiliz:

a) Eskabidea, deialdi honen eranskin moduan argitaratzen den ereduaren arabera.

b) NANaren fotokopia.

c) Errolda ziurtagiria.

d) Laguntza eskatzen duen pertsonaren curriculum vitae-a, eskabidearen xede den jakintza arloko prestakuntza eta espezializazioari buruzko egiaztagiri egokiak erantsita.

Adierazitako baina dokumentatu gabeko ekintzak ez dira kontuan edukiko.

e) Proposamen metodologikoa eta garatu beharreko ikerketa lerroa.

d) Ikasketa ziurtagiriaren fotokopia konpultsatuak.

f) Idatzizko konpromisoa, lana deialdi honetan ezarritako epean egin eta entregatzekoa.

Bosgarrena. Eskabideak aurkeztea eta epea

Laguntza eskabideak, laugarren oinarrian eskatzen diren agiriarekin batera, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Probintzia plaza, 5), lan orduetan, hau da, 08:15etik 14:30era arte, astelehenetik ostiralera, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eskaerak aurkezteko ezarri dituen moduetan.

Eskaerak aurkezteko epea hogeita egun natural izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak ez badira behar den moduan aurkezten, edo deialdi honetan eskatzen diren agiriarekin bat falta bada, interesdunari eskatuko zaio 10 egunen barruan akats hori zuzendu dezala edo aginduzko agiriak erants ditzala. Adierazi den epean hala egiten ez badu, bere eskabideari uko egiten diola iritziko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da.

Pertsona bakoitzak deialdi honetako laguntza bat bakarra eskatu ahal izango du.

Seigarrena. Iraupena, zenbatekoa eta kopurua

Bekaren xede den lanaren iraupena hiru eta sei hilabete artekoa izango da, emakida jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

Beka bakoitzaren zenbatekoa 3.000 euro izango da eta, gehienez ere, lau beka emango dira.

Zazpigarrena. Aurrekontua

Deialdi honetarako izendatutako zenbatekoa 12.000 euro da. Beken guztirako zenbatekoa ezin da izan handiagoa.

Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontuko partida honen kontura egingo da: 70.1.08.72.00.480.00.01 "Prestakuntza eta sorkuntza artistikorako beka" (lerro zenbakia: 70.148).

Zortzigarrena. Prozeduraren instrukzioa

Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzua izango da.

Bederatzigarrena. Eskaeren azterketa, balioespen irizpideak eta ebazpena

Onuradunak aukeratzeko proposamena batzorde batek egingo du, zeina honako hauek osatuko baitute:

– Batzordeburua: Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

– Batzordekideak: Museo eta Arkeologia Zerbitzuko burua, Arabako Arte Ederren Museoko teknikari arduraduna, eta Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoko zuzendaria eta liburutegi eta dokumentazio arduraduna edo haiek eskuordetutako pertsonak. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko buruak idazkari jardungo du, hitzarekin baina botorik gabe.

Irizpide hauen arabera egingo da balioespena:

– Proiektuaren kalitatea eta interesa, eta zenbateraino datorren bat museoaren ikerketa lerroekin; zazpi (7) puntu, gehienez ere.

– Ikasketa espedienteak; bi (2) puntu, gehienez ere.

– Ikerketan metatutako eskarmentua; puntu bat (1), gehienez ere.

Balioespen batzordeak aukeran izango du proiektua defendatzeko elkarrizketa bat eskatzea hautagaiei, egoki deritzenei.

Balioespen batzordeak, egoki iritziz gero, arloko espezialisten txostenak edo kanpoko aholkularitza teknikoa eskatu ahal izango ditu, aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko.

Batzorde horrek, aurkeztu diren eskabideak ikusirik, aukeran izango du proposatzea beka hauen esleipena erabat edo zati batean eman gabe uztea.

Balioespen batzordeak proposamen bat aurkeztuko du beka esleitzeko izan diren eskabideak lehentasun hurrenkeraz zerrendaturik, bateraezintasun, ausentzia eta uko egiteko kasuetarako.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak ebatziko du, Balioespen batzordearen txostena ikusi ondoren eta foru agindu bidez, deialdi honetako beka esleitzeaz, eta onuradunei jakinaraziko zaie ebazpena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegian, dagokion hartan, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Zuzenean aurkaratu ezean, nahi izanez gero, errekurtsioa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoan, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Beka eskabideak hiru hilabeteko epean ebatziko dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta bihar munetik hasita. Epe hori igaro eta artean ez bada ebazpen esanbidezkorik eman, adituko da ezetsi egin dela, hargatik eragotzi gabe geroago ebaztea.

Hamargarrena. Beka ordaintzea

Esleitutako beka, dagokion bezala PFEZren atxikipena egin ostean, bi alditan ordainduko da, honela:

a) 2.000 euro, laguntza ematen denean, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

b) 1.000 euro, hamaikagarren puntuaren f) apartatuan adierazten den lana aurkeztutakoan, behin Museo eta Arkeologia Zerbitzuen buruak oniritzia eman ondoren, Arte Ederren Museoko bekaren kasuan (gainerako beken kasuan, Artium Zentro-Museoko zuzendariak oniritzia eman ondoren).

c) Lana 2019ko abenduaren 31 igaro eta gero amaitzen bada, bigarren epeko zatia 2019ko abenduan ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

Hamaikagarrena. Laguntzen onuradunen eginbeharrak

a) Beka onartzen dela idatziz jakinaraztea, beka ematen den datatik 15 eguneko epearen barruan.

b) Aurreikusitako planean aldaketarik izanez gero, jakinaraztea.

c) Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 14. artikuluan orokorki ezarritakoak.

d) Beka hauetarako eskabideak aurkeztuz gero, adituko da berariaz eta baldintzarik gabe onartzen direla deialdi honetan ezarritako arauak.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoak ezarritako printzipio eta betebeharrak betetzea.

f) 2019an amaitzen diren beken kasuan, garatutako ikerketa lanaren amaierako memoria bat aurkeztu beharko da 2019ko abenduaren 30a baino lehen.

g) Beka 2019ko abenduaren 31 baino geroago amaitzen bada, 2020ko martxoaren 23a baino lehen, garatutako ikerketa lanaren azken memoria aurkeztu beharko da.

h) Isilpekotasun konpromisoa betetzea onuradunaren esku jartzen den informazioa dela-eta, hala agiri, txosten eta antzekoen bidez eskuratzen denari dagokionez, nola batzordeen bileretan edo lantaldeetan landutakoetatik datorrenari dagokionez.

Hamabigarrena. Ikerketaren jabetza

Arabako Artium Fundazioak eta Arabako Foru Aldundiak berentzat gordetzen dute ikerketa argitaratu eta haren berri zabaltzeko eskubidea, betiere lanen egiletza errespetatuz, indarrean diren jabetza intelektualari buruzko legeen arabera.

Hamahirugarrena. Dokumentuak itzultzea

Eskatzaileek aurkeztutako agiriak, haien eskabideak izan ezik, hilabeteko epean berreskuratu ahal izango dira, laguntza hauei buruzko ebazpena jakinarazi ondoren, salbu laguntzen onuradunek aurkeztutako materialak, horiek espedienteari gehituko baitzaizkio. Ezarritako epe hori igarotakoan, Euskara, Kultura eta Kirol Sailari aurkeztutako eta berreskuratu gabeko agiriak suntsitu egingo dira.

Baldin eskatzailea ez bada suertatu onuradun, eta eskabidean adierazi badu itzul dakiola aurkeztutako dokumentazioa, gutun azal bat sartu beharko du eskabidean, helbidea adierazita eta dagokion frankeoarekin; edo, bestela, garraio-kostua ordaindu gabeko mezularitzaren bidez itzul dakizkion eskatu.

Hamalauugarrena. Bateriaezintasunak

Deialdi honen xede diren laguntzak bateraezinak izango dira proiektu bera laguntzeko ematen den beste edozein laguntzarekin.

Hamabosgarrena. Laguntza itzultzea

Oinarri hauen hamaikagarren klausulan ezarritako betebeharrak bete ezean, eta Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntzak.

Onetsitako dirulaguntzaren kontura jasotako zenbatekoen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluan arautzen duenarekin bat etorriz egingo da.

Hamaseigarrena. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzerakoan zalantzaren bat sortuz gero, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du.

Hamazazpigarrena. Garapena

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta bidezko jotzen diren ebazpenak eman ahal izango dira, deialdi honen garapena bideratzeko, eta akzioak ere egikaritu ahal izango dira, exigitzarren eta egiaztatzarren datuak egiazkoak izan daitezela eta deialdi honetan araututakoa bete dadila. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute egindako jardueren inguruan Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere eman beharko dute.

Hemezortzigarrena. Publizitatea


Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahal dena egingo da komunikabide sozialetan zabalkunderik handiena izan dezan.

Hemeretzigarrena. Erreklamazioak

Deialdi honen bai beraren ondoriozko administrazio egintzen aurka jo ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasu eta moduetan.

Hogeigarrena. Azken klausula

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; Aurrekontua Betearazteko Foru Araua, indarrean dagoena; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa; Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<h2>2019an ikerketa egiteko bekaren eskaera - Museoak</h2> <h3>Solicitud de Beca de investigación 2019 - Museos</h3>
---	--

Eskaera zk. ■ N° de Solicitud
Eskaera data ■ Fecha de Solicitud

Eskaera zk. ■ N° Solicitud Eskera data ■ Fecha Solicitud

--	--

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

IFK NAN AIZ Besteren bat
CIF DNI NIE Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

--

Sexua ■ Sexo

Emakumea Gizona
Mujer Hombre

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

--

Lehen abizena ■ Primer apellido

--

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

--

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

--

Zk. ■ Núm.

--

Letra

--

Eskra. ■ Escal.

--

Solairua ■ Piso

--

Aldea ■ Mano

--

Herialdea ■ País

--

Probintzia ■ Provincia

--

Udalerría ■ Municipio

--

Herría ■ Localidad

--

P. K. ■ C. P.

--

Telefonoa ■ Teléfono

--

Mugikorra ■ Móvil

--

Faxa ■ Fax

--

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

--

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

--

Zk. ■ Núm.

--

Letra

--

Eskra. ■ Escal.

--

Solairua ■ Piso

--

Aldea ■ Mano

--

Herialdea ■ País

--

Probintzia ■ Provincia

--

Udalerría ■ Municipio

--

Herría ■ Localidad

--

P. K. ■ C. P.

--

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

NAN AIZ Besteren bat
DNI NIE Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

--

Sexua ■ Sexo

Emakumea Gizona
Mujer Hombre

Izena ■ Nombre

--

Lehen abizena ■ Primer apellido

--

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

--

Protokolo zk. ■ N° protocolo

--

Data ■ Fecha

--

Notarioa ■ Notario

--

Telefonoa ■ Teléfono

--

Mugikorra ■ Móvil

--

Faxa ■ Fax

--

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

--



ZEIN PROIEKTUTARAKO ESKATZEN DUEN BEKA (Adierazi X batez edo osatu) ■ PROYECTO/S PARA LOS QUE SOLICITA BECA.(Indicar con una X o completar)

<input type="checkbox"/>	ARTIUM MUSEOA. Proposatutako ikerketa proiektuaren izenburua jarri ■ MUSEO ARTIUM. Incluir título del proyecto de investigación propuesto
<input type="checkbox"/>	ARABAKO ARTE EDERREN MUSEOA. Erakusketen dokumentu eta argazki artxiboari buruzko ikerketa ■ MUSEO DE BELLAS ARTES DE ÁLAVA. Investigación del archivo documental y fotográfico de exposiciones

BANKUKO DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

BANCO	
IBAN	SWIFT

Aurretik aipatu den laguntzaren eskatzaile gisa, zera ADIERAZTEN DUT: ■ Como solicitante de la ayuda a la que he hecho mención anteriormente, DECLARO:

- ✓ **Proiektua egiteko laguntzarik ez dudala jaso, eta ez nagoela inongo bateraezintasunen menpe ■** No disfrutar de ningún tipo de ayuda para la realización del Proyecto, ni de hallarme en situación de incompatibilidad alguna
- ✓ **Ez daukadala zehapenik ez debekurik laguntza publikoak jasotzeko, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeaz baliatuz ■** No estar sancionada/o con la prohibición de ser persona beneficiaria de ayudas públicas en virtud de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres
- ✓ **Eskabide honetan eta berari erantsitako agirietan azaldutako datu guztiak egiazkoak direla. Jabeturik nago oinarriak ez betetzeak edo iruzurrezko omisio edo faltsutasunak zer nolako kaltea ekar diezadakeen ■** Que todos los datos expuestos en la presente solicitud y documentos que acompaño se ajustan a la realidad, siendo consciente del perjuicio que se me puede irrogar por incumplimiento de las Bases, omisión dolosa o falseamiento.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) Conforme entidad financiera (firma y sello)	Eskatzailearen/Ordezkairearen sinadura Firma de la persona solicitante/representante
Kontu korrontearen titularrak eta eskatzaileak/ordezkaireak pertsona bera behar du izan. La titularidad de la cuenta bancaria debe coincidir con la persona solicitante/representante.	

ESKAERARI ERANTSITAKO AGIRIAK (ESKAERAREN EREDUA OINARRI HAUEN ERANSKIN MODUAN ARGITARATZEN DA) ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA A LA SOLICITUD CUYO MODELO SE PUBLICA COMO ANEXO A ESTA CONVOCATORIA

- NANaren fotokopia ■** Fotocopia del DNI
- Errolda ziurtagiria ■** Certificado de empadronamiento
- Curriculuma eta laguntza eskatuko den arloan egindako ikasketen egiaztagiria, bai eta espezializazio ikasketenak ere ■** Curriculum Vitae y documentos acreditativos relativos a la formación y especialización en la disciplina objeto de la solicitud



- Garatu beharreko ikerketa proiektuaren laburpena, non zehaztu beharko baitira lan ildo metodologikoa eta proiektua gauzatzea zergatik den komenigarria** ■ Resumen del proyecto de investigación a desarrollar, especificando la línea metodológica de trabajo y la conveniencia de llevarlo a cabo
- Ikasketa ziurtagirien fotokopia konpultsatuak.** ■ Fotocopias compulsadas de certificaciones académicas.
- Idatziko konpromisoa, zeinetan adieraziko baita lana egin eta aurkeztu dela deialdian esaten den epean.** ■ Compromiso por escrito de realizar y entregar el trabajo en el plazo establecido en la presente convocatoria.

Oharra (1)

Datu Personalak Babesteko dauden arauak betez, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitategietan jasoko direla. Fitategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak egitaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa bakarren helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduren harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra (3)

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Ez ordezkatzen dudun erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridikok edo elkarte ez duela, sexua dela eta, inor bazterten, ez zuzenean ez zeharka, onarpen eta funtzionamendu prozesuetan, OLoren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasun Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

BIGARRENA.- Ez ni ez ordezkatzen dudun erakunde edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta, inor bazterteazagatik, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalaugarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste.

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako betebeharrak.
2. Sexua dela eta, ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako erreklamazio edo berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioa betetzeko eskatzen duten egintza administrazio edo judicial baten aurrean, haien aurkako jarrera dakarten enpresaburuaren erabakiak.
4. Publizitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazoi, onerako edo txarrerako bazterten dutenak.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere, baldin eta enpresaburuak, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46 bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badio. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

Nota (1)

En cumplimiento de la normativa de "Protección de Datos de Carácter Personal", le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

Nota (3)

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24(2) de la Ley de Igualdad de Euskadi

SEGUNDO.- Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo):

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo,
3. Decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación
4. Establecer condiciones, mediante la publicidad, difusión o por cualquier otro medio, que constituyan discriminaciones favorables o adversas para el acceso al empleo por motivos de sexo,
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.